

DONOSTIAKO GABONETAKO AZOKAN ETXOLAK USTIATUZ PARTE-HARTZEA ARAUTZEKO OINARRIAK 2020.
URTEAN.

AURKIBIDEA:

1. XEDEA	2. or.
2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA	2. or.
3. ETXOLAK ALOKATU ETA USTIATZEKO BALDINTZAK	4. or.
4. SALGAIAK ERAKUSGAI IPINTZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BETEKIZUNAK	5. or.
5. ESKAERAK, EPEA ETA AURKEZPENA	6. or.
6. ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA	8. or.
7. ESKAEREN PROZEDURA ETA BALIOESPENA	9. or.
8. BETEBEHARRAK	11. or.
9. KONTRATUA SUNTSITZEA	12. or.
10. DATUEN BABESA	13. or.
11. AZKEN XEDAPENA	13. or.

1. HELBURUA.

Oinarri hauen helburua Donostiako Gabonetako Azokak 2020ko azaroaren 28tik 2021eko urtarrilaren 6ra bitartean hartuko dituen eremu ezberdinetan ipintzeko etxolen esleipena arautzeko baldintzak erregulatzea da.

2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA

Azoka gutxi gorabehera 38 etxolek osatuko dute, Donostia Sustapenak ipiniko dituenak. Horrez gain, 4 food-truck (jakien ibilgailu) egongo dira, gutxi gorabehera. Horien eskaera erakusketari tokikoek, eskualdekoek, nazionalak edo nazioartekoek egin ahalko dute.

GBE, fundazio eta Gipuzkoan lekutzen diren eta legez eraturik dauden bestelako erakundeentzat gehienez bi salmenta-postu gordetzeko aukera jasotzen da.

Etxola horiekin batera beste elementu ugari instalatuko dira, esate baterako, herritarrek erabiltzeko karpak eta azoketako atrakzioak, eremu hori Gabonetako topaleku pilakatzeko xedez.

Gaikako izaera horri helduz, merkatuan Gabonetako produktuen postuak edo Gabonetan ohikoak izaten diren produktuen salmentarako postuak instalatuko dira aipatutako eremu horietako bakoitzean:

- ❖ I. MULTZOA: Elikadura: Gabonetako, sasoiko, produktu tipikoak, gozokiak eta opilgintza, gastronomia, kontserba hautatuak, fruitu lehorrak eta elikadura orokorra.
- ❖ II. MULTZOA: Oparitarako gaiak: apaingarriak, brokantea, lorezaintza, zeramika, urregintza, moda eta pintura.
- ❖ III. MULTZOA: Gabonetako apaingarriak: jaiotzak, jaiotzetarako osagarriak, Gabonetako apaingarriak, Gabonetako loreak, zurezko jostailuak, etab.

Merkatuan sare elektriko eta ur instalazioa, komun publikoak, segurtasuneko langileak eta azokako jardueren inguruan artatu eta horiek koordinatzeko langileak izango dira

2.1. Etxolen ezaugarriak

Bi etxola mota bereizten dira aurretiaz aipatutako produktuen salmentarako: etxola txikiak eta etxola handiak, ezaugarri hauekin:

2.1.1. Etxola txikiak:

- Neurriak: 3x2 metro (6 m²) Altuera alboetan 205cm. Altuera erdian 270 cm.
- Materiala: egurra.
- Berriki eraikitako etxola aurrefabrikatuak. Horrela hornituta:
 - Aurrealdeko irekigunea, erakusmahaiak, eta kontraleiho baskulatzailerak bezeroak artatzeko, sistema hidraulikoz eta sarrailaz hornituta.

- Atzealdea egur trinkoz sarrailaz hornituta, egurrezko zorua eta ecum. oholdun sabai babestua.
- Aurrealdeko erakusmahaia, ipini edo ez ipintzeko aukeraz.
- Alboetan bi irekigune, erakusmahaiaz, eta kontraleiho baskulatzaila bezeroak artatzeko, sistema hidraulikoz eta sarrailaz hornituta.
- Salgaiak ipintzeko hiru apal.
- Kanpoko argiztapena.
- Errotulu komertziala.
- Koadro elektrikoa, 3500w-ko diferentzialaz eta hiru entxuferekin.

2.1.2. Etxola handiak: etxola mota hori Urumea Plazaren barnean kokatuko da, eta Elikadurarako erabiltzea lehenetsiko da, erabilgarri dagoen kopuruan.

- Neurriak: 4x2 metro (8 m²) Altuera alboetan 205cm. Altuera erdian 270 cm.
- Materiala: egurra
- Berriki eraikitako aurrefabrikatutako etxolak, ezaugarri hauekin:
 - Aurrealdeko irekigunea, erakusmahaiaz, eta kontraleiho baskulatzaila bezeroak artatzeko, sistema hidraulikoz eta sarrailaz hornituta.
 - Atzealdea egur trinkoz sarrailaz hornituta, egurrezko zorua eta ecum. oholdun sabai babestua.
 - Aurrealdeko erakusmahaia, ipini edo ez ipintzeko aukeraz.
 - Alboetan bi irekigune, erakusmahaiaz, eta kontraleiho baskulatzaila bezeroak artatzeko, sistema hidraulikoz eta sarrailaz hornituta.
 - Salgaiak ipintzeko sei apal.
 - Kanpoko argiztapena.
 - Errotulu komertziala.
 - Koadro elektrikoa diferentzialaz eta hiru entxuferekin.

Aukeran:

- a) Sistema eramangarriz hornitutako eskuak garbitzekoa, 10 litroko 2 bidoi eta ekintza bikoitzeko pedalarekin: Araudiari jarraiki jarduera burutzeko derrigorrez ura erabili behar den kasuetarako eta beste arrazoi baten ondorioz ura erabili beharra dagoen kasuetarako. Kasu horretan, eskuak garbitzekoaren hautaketak prezioa 200 eurotan areagotzea ekarriko du.
- b) Etxolen elkarketa (etxolaren eskaera epealdi osorako denean soilik): erakusketariren batek etxola komertzial handiagoa izateko interesa agertuko balu, etxolen modeloak bi etxola elkartzeko aukera ematen du, barneko espazioa garbi geratuz. Kasu horretan, bi etxola elkartzeak prezioa 120€ eurotan areagotzea ekarriko du.

Etxolak Donostiako Sustapenak emango ditu. Kanpoko dekorazioa Donostia Sustapenaren kontura izango da, eta etxola guztiak modu homogeneoan girotuko ditu. Donostia Sustapenak identifikaziorako errotulu bat ipiniko du, etxolaren kanpoaldean parte-hartzaile bakoitzaren izen komertziala adierazita. Barneko dekorazioa erabiltzailearen kontura izango da eta Donostia Sustapenak ezarri eta behar bezala jakinaraziko dituen dekoraziorako argibide orokorrak izan beharko ditu kontuan. Halaber, hautatutako erakusketariak Euskadiko araudian hizkuntzari dagokionez ezartzen diren betebeharrak bete beharko dituzte. Beraz, kartel guztiak eta komunikaziorako euskarri denak euskaratuta egon beharko dira. Horretarako, Udaleko itzulpen zerbitzuen laguntza izan ahalko dute. Elektrizitate, ur eta saneamendurako instalazioak ere Donostia Sustapenaren kontura izango dira.

Eranskinean etxolen xehetasun teknikoa atxikitzen da.

2.2. Kokapena.

Gabonetako Azoka hiriaren erdigunean barna hedatuko da. Etxola eta food-truckak (elikagaien ibilgailuak) Urumea Pasealekuan, Santa Katalina Zubiaren eta Maria Kristina Zubiaren arteko tartean eta Urumea Plazan kokatuko dira.

Donostia Sustapenak Gabonetako Azoka egiteko eremuak aldatu edota areagotzeko eskubidea gordetzen du. Horrez gain, Gabonetako Azoka ospatzeko bide publikoaren okupazioarekin lotuta gerta daitezkeen ustekabeen aurrean, haren kokapena aldatu ahalko du. Edozein kasutan, hiriaren erdiguneko eremu batean lekutuko da beti, normalean bisitari asko izaten den espazioan.

Behin betiko kokapena, hala etxolena nola food-truck ibilgailuena, Sustapenak zehaztuko du. Halaber, Sustapenak esleituko dio erakusketari bakoitzari okupatuko duen edo dituen etxola zehatzak. Ebazpenean bertan erakusketari bakoitzari esleitu zaion eta okupatu beharko duen etxola zein den jakinaraziko zaio, edo food-trucken kasuan horien kokapena jakinaraziko zaio.

3. ETXOLAK ALOKATU ETA USTIATZEKO BALDINTZAK

Jarrian, Azokaren garapen osoan zehar erakusketari guztiek bete beharko dituzten baldintzak zehazten dira:

Egutegia eta ordutegia:

Etxolak eta food-truckak irekita egon beharko dira egunero 2020ko azaroaren 28tik 2021eko urtarrilaren 21era bitartean. Ezingo dira itxi justifikatutako arrazoirik izan eta Sustapenak behar bezala onartu ezean. Modu ezohikoan, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an itxita egon ahalko dira.

Honakoa izango da irekitzeko ordutegia:

Lanegunak:

- Etxoletarako ordutegia: 11.00 eta 21.00 bitartean
- Etxolak derrigorrez irekita izateko ordutegia: 11.30 -14.30 eta 16:30 - 20:00 bitartean

Jaiegunetan eta jaiegun bezperetan:

- Etxoletarako ordutegia: 11.00 eta 21.00 bitartean
- Etxolak derrigorrez irekita izateko ordutegia: 11.30 -14.30 eta 16:00 - 20:30 bitartean

Salbuespenak:

- Gabon gaua eta Urtezahar gaua: arratsalde 19etan itxi daiteke

- Gabon eguna, Urte berri eguna eta Erregeak: erakusketari bakoitzak erabaki ahalko du etxola ireki ala ez.

Donostia Sustapenak ordutegia aldatzeko eskubidea gordetzen du, esleipendun suertatzen diren erakusketarien adostasunarekin. Halaber, aparteko egoeraren baten aurrean, Covidak eraginda, esaterako, Donostia Sustapenak, osasun agintarien adierazpenei jarraituta, beharrezkoak diren aldaketa guztiak egingo ditu Merkatuan.

Erakusketariek, justifikatutako arrazoi objektiborik gabe, egutegia eta ordutegia behin eta berriz urratzen baldin badituzte, etxola ustiatzeko eta, horrenbestez, Azokan parte hartzeko eskubidea gal dezakete.

Etxolen alokairuaren prezioa (ikus II. Eranskina):

Donostia Sustapenak, aurreko urteetan bezala, hiriaren garapen ekonomikoaren alde eginez, Gabonetako Azokako erakusketariek parte hartzeko diru-laguntza ematen du, etxolaren kostuaren gehiengoa bere gain hartuz (ikus II. Eranskinean etxola ezartzeak dituen kostu ekonomikoen xehetasuna).

Honako hauek dira diru-laguntza aplikatu ondorengo prezioak.

Etxola aldi osorako edo hamabost egunerako alokatzeko aukera dago.

A) Prezioa epealdi osorako (2020/11/28 – 2021/01/06):

- Etxola txikiak: ,1.290 euro (BEZ barne).
- Etxola handiak eta Food-truckak: 2.420 euro (BEZ barne)

B) Prezioa Hamabostaldia. Bi epealdi ezartzen dira. Bata 2020ko azaroaren 28tik abenduaren 16ra. Bestea 2020ko abenduaren 17tik 2021eko urtarrilaren 6ra luzatzen da.

- Etxola txikiak: 730 euro (BEZ barne).
- Etxola handiak eta Food-truckak: 1.490 euro (BEZ barne)

Prezio horri 200 euro gaineratuko zaizkio eskuak garbitzekoa instalatzea eskatzen duten erakusketarien kasuan eta 120 euro etxolak elkartzea eskatzen dutenen kasuan.

200 euroko fidantza bat ezartzen da etxolako bertan, erabiltzaileari egotzi ahal zaion arrazoi baten ondorioz, eragindako balizko kalteetarako. Fidantzaren itzulketa kontserbazio-egoera ona egiaztatzen duen txosten teknikoaren arabera izango da.

Merkatutzeko produktuaren edo produktuaren salmenta arautzeko araudia bete beharko da.

Etxolaren alokairua edo food-trucka kokatzeko eremua Sustapenaren eta onuradunaren artean kontratua sinatuta formalizatuko da (azaroaren hilabetean).

Prezio osoa kontratua sinatu aurretik ordainduko da, Sustapenak adierazitako kontura banku transferentzia eginez.

4. SALGAIK ERAKUSGAI IPINTZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BETEKIZUNAK

Alokairuaren pertsona onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarrekin ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.

Ezingo zaie etxola baten alokairua esleitu sektore publikoarekin kontratatzeko debekuren bat duten pertsona fisiko edo juridikoei, edo Ogasunarekin, Gizarte Zerbitzuekin edo Donostiako Udalarekin ordainketak zor dituztenei, edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat dutenei, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko seigarren azken xedapenean xedatutakoaren arabera sexuaren ondoriozko diskriminazioetatik zigortutakoak barne.

Halaber, lizitatuzaileek eskaintzen diren prestazioak burutzeko, hala dagokionean, eska daitekeen gaitasun profesionala edo enpresa mailakoa izan beharko dute.

Hauek dira oinarri hauetan arautzen diren alokairuen onuradun diren pertsonen bete beharreko betekizunak:

- a) Alta emanda egon behar dute dagokion erregimenean autonomo/enpresa modura kontratua sinatzen den unean. Eskaera egiten den unean alta emanda ez badago, Gizarte Segurantzaren erregimenean nahiz dagokion Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta emateko konpromisoa erakutsi beharko du, formalizazioaren aurretik
- b) Donostia Sustapenarekin, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzaren zorrik ez izatea.
- c) Kontratua sinatzen den unean jarduera bera garatzeko eskagarri diren onespenez eta baimen guztiak izatea.
- d) Kontratua sinatzen den unean kontratuak irauten duen bitartean jarduera estaltzeko Erantzukizun Zibileko aseguru bat izatea.

5. ESKAERAK, EPEA ETA AURKEZPENAK.

Oinarriak Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko dira: www.donostiagabonetakoazoka.eus eta www.fomentosansebastian.eus webgunean ere bai

Interesa duen pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da, produktu mota adierazita eta, hala badagokio, interesatzen den etxola kopurua eta okupazioaren aldia ere adierazita.

Bi interesdun edo gehiagoren artean baterako eskaera aurkeztu ahalko da ezaugarri berdineko produktuen salmentan. Kasu horretan, parte-hartzaile guztiek Oinarri hauetan eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte, esakeran salmentarako objektuak eta bakoitzak postuan emango duen denbora (epea) zehaztuz.

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko uztailaren 15eko goizeko 9:00etatik hasi eta 2020ko irailaren 15eko arratsaldeko 19:00ak artekoa izango da. Sustapenak epe hori areagotzeko eskubidea gordetzen du.

Eskaerak modu telematikoan aurkeztuko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus), bertan ezartzen diren eskakizunak betez.

Arazoren bat gertatuz gero, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da eta hark izapidetzeko modua zehaztu ahalko du. Edozein informazio edo kontsulta egiteko deitu 943.482800 telefonora edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbidera, erreferentzia modura honakoa adieraziz: Gabonetako Azoka.

Azokan izena emateko eskaerarekin dokumentazio hau gaineratu beharko da:

- ❖ Eskaera-inprimakia (eskaeraren eranskina).
 - ❖ Pertsona fisikoaren kasuan, eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
 - ❖ Pertsona juridikoaren kasuan, eskatzailearen IFK kodearen kopia eta, hala badagokio, sinatzailearen NAN agiria.
 - ❖ Oraindik eratzeko dagoen enpresa baten kasuan, enpresa eratzeko berariazko borondatea adierazi beharko da (eskaeraren eranskina).
 - ❖ Elikadurako erakusketarien kasuan, honakoa aurkeztu beharko da:
 - “Erantzukizunpeko Adierazpena” dokumentuaren sinadura (deskargatu dokumentua)
 - Produktu bakoitzaren osasun erregistroa.
 - ❖ Food-trucken kasuan, modu espezifikoan, honakoak ere atxiki beharko dira:
 - Funtzionamenduaren osasun baimena. Hala badagokio, gastrofurgo modura homologatzeko dokumentua.
 - Zirkulazio baimena, ibilgailuen aseguruaren ordainagiria eta IAT azterketaren kopia.
 - Ibilgailuaren argazkiak.
 - ❖ Artisautzako ekoizleen kasuan artisau edo artista izaera egiaztatu beharko da. Horretarako, organismo ofizialek beren jarduerak ebaluatu edo ziurtatu ahal izateko dokumentu edo titulazioak helarazi beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Artisautza Jardueren Erregistroko kide izateko dokumentua barne.
 - ❖ Alderdi hauek jasotzen dituen memoria:
 1. Ekonomia jardueraren deskribapen laburra:
 - Erakusketariaren jardueraren deskribapena
 - Jardueraren jatorria eta eraketa-data
 2. Pertsona eskatzaileak Gabonetako azoketan duen **esperientzia** eta bere profesionaltasuna, zera adieraziz:
 - geografia eremua
 - antzeko azoketan izandako partaidetza kopurua, lekuak eta iraupena adierazita, eta aipatu azoketan zein produktuekin parte hartu duen ere jasoz.
 3. Balioesteko elementuen deskribapena, aurkeztu asmo duen kategoriarekin bat etorritz:
- I. MULTZOA: Elikadura:
- **Norberak eraturako produktuak:** Eraketa-prozesuaren deskribapena eta norberaren ekoizpena adierazteko ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena. Produktuen argazkiak:
 - **Produktuen aniztasuna:** Merkaturatzeko produktuen zerrenda eta Donostiako Gabonetako Azokan horiek saltzearen egokitasuna.
 - **Produktuaren erakusketa eta kokapena:** Produktuen kokapenaren argazkiak edota argazki-muntaketa, Gabonetako Azokan erabiltzeko antzeko etxola batean ipinita,

aurreikusten den barne dekorazioa ere agertuz. Parte hartu den beste azoka/erakusketa batzuetako argazkiak atxiki daitezke.

- **Produktu ekologikoak eta elikadura jasanezintasunetara egokituak:** izaera ekologikoko produktuen zerrenda, eta baita elikagai jakin batzuekiko alergikoak edo intoleranteak diren haientzat pentsatutakoena.
- **EJZ zerga Donostian:** 3 hilabete baino gutxiagoko antzintasuna duen EJZ dokumentua.
- **Establezimendu fisikoa Donostian:** alokairuaren kontratua, eskriturak edo hiriko komertzio baten bidez salmenta justifikatzeko antzeko dokumenturen bat.

II. MULTZOA: Oparitarako gaiak eta III. multzoa: Gabonetako apaingarriak

- **Produktuaren kalitatea:** Produktuen argazkiak eta horien deskribapena (diseinua eta materialak).
- **Produktuen aniztasuna:** Merkatutzeko produktuen zerrenda eta Donostiako Gabonetako Azokan horiek saltzearen egokitasuna.
- **Produktuaren erakusketa eta kokapena:** Produktuen kokapenaren argazkiak edota argazki-muntaketa, Gabonetako Azokan erabiltzeko antzeko etxola batean ipinita, aurreikusten den barne dekorazioa ere agertuz. Parte hartu den beste azoka/erakusketa batzuetako argazkiak atxiki daitezke.
- **Berritasuna eta originaltasuna:** Gainerakoen aurrean norberaren produktuak bereizteko faktoreen deskribapena.
- **Gabonetako izaera:** produktuak Gabonekin duen lotura.
- **EJZ zerga Donostian:** 3 hilabete baino gutxiagoko antzintasuna duen EJZ dokumentua.
- **Establezimendu fisikoa Donostian:** alokairuaren kontratua, eskriturak edo hiriko komertzio baten bidez salmenta justifikatzeko antzeko dokumenturen bat.

Eskaeretan jarduerarako eskatzen diren premia espezifikoen xehetasunezko informazioa jasoko da, erakundeak horien egokitasuna eta bideragarritasuna balioeste aldera.

6. ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA,

Eskaera erregistratzeko unean eskaeraren inprimakia atxiki beharko da Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio guztia berrikusi ostean, eskaera osorik beteta ez dagoela egiaztatzen baldin bada, edo dagozkion dokumentuak gaineratu ez baldin badira, pertsona edo erakunde eskatzaileari deia egingo zaio 10 egun balioduneko epean zuzendu dela jakinarazi den egunetik gabezia konpondu edo dagozkion dokumentuak gainera ditzan, hala egingo ez balu, eskaera hori bestelako izapiderik gabe baztertu egingo dela adieraziz, ondorioz, horri buruzko ebazpena emanez.

Donostia Sustapenak komenigarritzat jotzen badu azalpenak eska ditzake.

7. ESKAEREN PROZEDURA ETA BALIOESPENA.

Erakusketarien esleipena lehiakortasuna gertatzeko printzipioei jarraiki egingo da. Etxolen ustiapena atal honetan azaltzen diren irizpideekin bat etorri ebaluazioa egin ostean puntuazio gehien lortzen duten eskaerei esleituko zaie. Puntu gehien lortu duten eskaerekin itxarote-zerrenda bat eratu ahalko da, betiere, Gabonetako Azokan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Produktu-kategoria bakoitzeko erakusketarien portzentaje hau estimatzen da (etxolak eta food-truckak) guztizkoaren gainean:

- ❖ I. MULTZOA: Elikadura: % 40
- ❖ II. MULTZOA: Oparitarako gaiak: % 35
- ❖ III. MULTZOA: Gabonetako apaingarriak: % 25

Erakusketarien hautaketa irizpide hauen arabera egingo da, categoria bakoitzerako:

Hauek dira horietako bakoitzerako balioespenerako irizpideak:

I. MULTZOA: Elikadura:

- **Norberak eraturako produktuak:** erakusketariak berak egindako produktuen eskaintza balioetsiko da.
Gehienez 30 puntu.
- **Produktuen aniztasuna:** Azokan saltzeko produktuen aniztasuna balioetsiko da.
Gehienez 25 puntu.
- **Produktuaren erakusketa eta kokapena:** produktuak salmenta postuan zer-nola zaindu, antolatu eta zehaztuta dauden balioetsiko da. Halaber, posturako aurreikusitako barne dekorazioa balioetsiko da.
Gehienez 15 puntu.
- **Produktu ekologikoak eta elikadura jasanezintasunetara egokituak:** produktu ekologikoen eta elikadura jasanezintasunera egokitutakoen eskaintza balioetsiko da.
Gehienez 10 puntu.
- **Gabonetako izaera:** Gabonetan ohikotasunez kontsumitzen diren produktuen eskaintza balioetsiko da.
Gehienez 10 puntu.
- **EJZ zerga Donostian:** EJZ zerga Donostian lekututa duten jarduerak balioetsiko dira.
Gehienez 5 puntu.
- **Establezimendu fisiko Donostian:** pertsona eskatzaileak Donostiako hirian salmentarako establezimendu fisiko bat izatea balioetsiko da.
Gehienez 5 puntu.

II. MULTZOA: Oparitarako gaiak eta III. multzoa: Gabonetako apaingarriak

- **Produktuaren kalitatea:** produktuen ezaugarriak beren diseinu eta materialak kontuan izanik balioetsiko dira.
Gehienez 30 puntu.
- **Berritasuna eta originaltasuna:** produktu ekologikoen eta elikadura jasanezintasunera egokitutakoen eskaintza balioetsiko da.
Gehienez 25 puntu.
- **Produktuaren erakusketa eta kokapena:** produktuak erakusmahaiari zer-nola zaindu, antolatu eta zehaztuta dauden balioetsiko da. Halaber, posturako aurreikusitako barne dekorazioa balioetsiko da.
Gehienez 15 puntu.
- **Produktuen aniztasuna:** produktuen eskaintzaren aniztasuna balioetsiko da.
Gehienez 10 puntu.

- **Gabonetako izaera:** Gabonetan ohikotasunez kontsumitzen diren produktuen eskaintza balioetsiko da.
Gehienez 10 puntu.
- **EJZ zerga Donostian:** EJZ zerga Donostian lekututa duten jarduerak balioetsiko dira.
Gehienez 5 puntu.
- **Finkatze fisikoa Donostian:** pertsona eskatzaileak Donostiako hirian salmentarako establezimendu fisiko bat izatea balioetsiko da.
Gehienez 5 puntu.

Jasotako eskaeretan gehienez 100 punturekin ebaluatuko dira eremu nazionalerako eta 90 punturekin gehienez nazioarterako. Azken kasu horretan, ez dira balioetsiko EJZ zergaren eta Donostian egoitza izatearen irizpideak eta puntuazioa 100 oinarritzat hartuta bihurtuko da esleipendunen azken zerrenda ezartzeko kasu guztietan berdintasunezko baldintzetan.

Etxola ustiatzeko esleipenaren onespina edo ukoa egiteko Donostia Sustapenak berariazko ebazpena emango du urriaren 6a baino lehen. Sustapenak epe hori luzatzeko eskubidea gordetzen du.

Gabonetako Azokan parte hartzeko hautatutako eskaeren zerrenda www.gabonetakoazoka.eus web-orrian argitaratuko da.

Esleipendunek informazio hau aurkeztu beharko dute, beranduenez esleipendunen zerrenda argitaratu eta 10 egunera:

Tokiko, eskualdeko edo eremu nazionalerako erakusketarientzako eskaerak

- ❖ Pertsona eskatzailearen jarduera ekonomiko eta historikoen dokumentu eguneratua. Gipuzkoako eskaeren kasuan, Donostia Sustapenak aukera izango du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren historiaren (altak, bajak, aldaketak, jardueraren epigrafeak) egiaztagiria jasotzeko zuzenean, Gipuzkoako Foru Ogasunak igorria. Horretarako, interesdunak eskaeraren dokumentuan hala adierazi beharko du.

- ❖ Aseguru konpainiaren jatorrizko ziurtagiria, indarreko erantzukizun zibileko aseguru baten poliza izatea egiaztatzea, garatutako jardueratik eratorritako balizko erreklamazioak estaliko dituen, baimendutako epealdirako produktuetatik eratorritako erantzukizuna barne. Indemnizazioa gutxienez 50.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzeko eta 30.000 eurokoa biktima bakoitzeko.
- ❖ Elikagaiak manipulatu diren etxolen kasuan, enpresek eskatzen den dokumentazio osagarria atxiki beharko dute.
- ❖ Fidantzaren eta etxolaren alokairuaren zenbateko osoaren ordainagiriaren kopia (estra guztiak barne, baleude).

Aurrekoaren kalterik gabe, Erakundeak aukera izango du eskatzaileari beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio edo dokumentazio gehigarri eskatzeko, helarazitako datuak egiaztatze aldera.

Dokumentazioa aurkezteko epeak betetzen ez badira, eskaera bertan behera geratzen dela ulertuko da, baldin eta Sustapenak epea luzatzea onartzen ez badu, aldeztatik arrazoi justifikatuekin interesdunak eskaera bideratu ostean.

8. BETEBEHARRAK.

- A) Zerga-betebeharren ordainketa eguneratuta izatea, eta kasu bakoitzean eskatzen den laneko araudia betetzea.
- B) Postuan pertsonalki harrera egiten duen pertsonak kasu bakoitzean aplikagarri diren elikadurari dagozkion higie eta segurtasuneko baldintzak bete beharko ditu. Pertsona bat baino gehiago egonez gero, haiek guztiek elikadura higie eta segurtasun baldintzak bete beharko dituzte.
- C) Erakusketariak COVID-19 gaixotasunaren prebentziorako Osasun arloko agintaritzek ezarritako arau eta protokolo guztiak bete beharko ditu zehatz-mehatz, eta etorkizunean ager daitezkeenetara ere egokitu egin beharko da, hala bere lanari dagozkion eragiketen kasuan nola kontsumorako zonarekin lotutakoen kasuan.
- D) Esleitutako instalazioa eskaeran adierazitako xederako izango da soilik.
- E) Donostia Sustapenak Gabonetako Azokan etxola bat okupatzeko ezarritako zenbatekoa ordaintzea.
- F) Produktuekin lotuta erakusgai ipintzen diren kartel guztiak euskaraz nahiz gaztelaniaz izatea.
- G) Zoladura kalte dezaketen ainguratzeak ez daude baimenduta.
- H) Hirugarrenei salmentarako baimenak ez laga, saldu edo berrakuratzea, horien izaera pertsonal eta besterenezina kontuan izanik.
- I) Norberaren postuan egotea, produktuak eskainik batetik bestera ibili gabe.

- J) Salmentarako jarduna burutzeko emandako etxolak zehaztutako espazioa baino gehiago ez erabiltzea, ez delarik inolaz ere onartzen salgaiak erakusgai ipintzeko aurrealdeko edo alboetako pasabideak erabiltzea
- K) Baimendutako elementuen kokapenerako baldintzak ez direla aldatzen etengabe zaintzea, onartutako baimenean agertzen diren moduan betez.
- L) Instalazioak, emandako azalera eta inguruneak egoera bikainean mantentzea segurtasunari, garbiketari, apaindurari, osasunari eta higienari dagokienez, hala okupazio-ordutegian nola hura amaitzean.
- M) Donostia Sustapenak Gabonetako Azokan parte hartzeko ezarritako ordutegia betetzea.
- N) Behin okupazioa altxatzen denean, bide publikoa libre eta okupatu aurretik zegoen baldintzetan geratu beharko da, eta ezingo da alegatu baimena eskatzean adierazi ez ziren kalterik dagoenik.
- O) Standaren kanpoan ez da baimenduko inolako publizitate, propaganda edota kartelak ipintzea, salmentarako postuetan megafonia indibiduala debekatuta dagoelarik.
- P) Hala badagokio, artisau elikagaiak saltzera bideratutako onartutako instalazioetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen higiene eta elikadura aldetiko baldintzak eta babeserako baldintzak arautzeko araudi orokorrean jasotzen diren xedapenak bete beharko dira.
- Q) Behin baimena onartuta, hala eskatzen baldin bada, titularrak aseguru konpainiaren ziurtagiri originala aurkeztu beharko du, garatutako jardueratik eratorritako balizko erreklamazioak estaltzeko indarreko erantzukizun zibileko aseguruaren poliza dagoela egiaztatzekoa, hala badagokio, baimendutako epealdirako produktuetatik edo elikagaien intoxikaziotik eratorritako erantzukizuna barne.
- R) Edozein unetan onartutako baimena eta baimenaren titularraren nortasuna egiaztatzeko dokumentazioa erakutsi beharko da, ikuskapeneko udal langileek edota segurtasun agenteek hala eskatuz gero.

9. KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira, besteak beste:

- Pertsona titularraren ukoa. Uko horrek 300 euroko zigorrak ekarriko du, suntsitze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin 6 egun baliodun igarotan egiten baldin bada.
- Pertsona titularraren heriotza.
- Baimena eskuratu eta mantentzeko eskatzen diren betekizun guztiak edo batzuk galtzea.
- Oinarri hauetan eta kontratuan bertan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Behartutako kasuak eraginda Gabonetako Azoka bertan behera geratzea.
- Herritarren segurtasunarekin edo interes publikoarekin lotutako arrazoiengatik Gabonetako Azoka bertan behera geratzea, betiere, arrazoituta.

Kasu horietan, Donostia Sustapenak suntsitzeko aukera izango du, eta ez da inolako indemnizaziorako edo konpentsaziorako eskubiderik sortuko.

Azoka inauguraziorako aurreikusitako egunaren aurretik bertan behera geratuz gero, Sustapenak erakusketari bakoitzak ordaindutako kopuruaren % 100 itzuliko du. Halaber, behin Azoka hasita bertan behera geratzen bada, Sustapenak azokarik gabeko egunen zati proportzionala itzuliko du.

10. DATUEN BABESA

Esku-hartze horren barnean jaso eta sortutako datu pertsonalak Donostia Sustapenak kudeatuko ditu enpresa-proiektuak babestu eta bultzatzeko nahiz enpresa edota pertsona autonomoak sustatzeko zerbitzuak emateko. Horren harira, eskatu eta sortzen diren datu pertsonalak ezinbestekoak dira zerbitzu hori emateko, eta datu horiek izan gabe ezinezkoa da zerbitzu hori ematea.

Helarazitako datu pertsonaletan izan daitekeen edozein aldaketa Donostia Sustapenari jakinarazi beharko dio titularrak, eta azken hori izango da une bakoitzean emandako datuen egiazkotasuna eta zehaztasunaren gaineko erantzulea. Hirugarren pertsonen datuak ematen baldin badira, eskatzaileak datu horien titularren baimena izan beharko du datu horiek jakinarazteko. Datu horien tratamenduaren erantzulea Donostiako Udala da eta Donostia Sustapena da tratamendu horren arduradun zerbitzuaren kudeatzaile gisa.

Donostiako Sustapenak kudeatutako datu pertsonalen tratamendurako ahalmena ematen duen titulu juridikoa Datuen Babeserako Europako Erregelamendu Orokorreko 6. artikuluan jasotzen den interes publikoa da.

Datuak hirugarrenei lagako zaizkie legezko betebeharrak betetzeko edo kanpoko hornitzaileen aldetik zerbitzuari euskarria emateko beharrezkoa izanez gero.

Datuak zerbitzuak irauten duen bitartean gordeko dira ezarritako kontratuaren arabera, eta ondoren bost urteko epealdiz ere bai, zerga arloko araudia betez. Datu pertsonalen tratamenduari dagozkion eskubideak Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan erabili ahal dira, ljentea kaleko 1. zenbakian (2003 posta-kutxa).

Horri dagokionez, adierazten da dagokion eskaera aurkeztuz eskatzaileari datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa eman zaiola aurreko lerroaldeetan adierazitakoarekin bat etorriz.

11. AZKEN XEDAPENA.

Oinarri hauek Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko dira eta bertan argitaratzen den egunean bertan sartuko dira indarrean. Interesdunak eskaera aurkezteak berekin dakar Oinarri hauen onarpena eta eskatzailearen aldetik Gabonetako azokaren arau espezifikoak eta azoka behar bezala gara dadin Erakundeak ezarritako xedapen zehatzak onartu eta ontzat hartzearen konpromiso ukaezina sortzen du.

Hautatutako pertsona izango da aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren erantzule bakarra, eta baita esku-hartzeen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztiena ere, are, baita jardueraren aurretik eta ondoren burututakoena, Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuz.



Donostia, 2020 uztailaren 15ean

Euken Sese Sarasti

Donostiako Sustapeneko (Fomento San Sebastian S.A.) gerentea

I. ERANSKINA: BI ETXOLA MODELOEN DESKRIBAPENA

1. Kiosko Modeloa (etxola txikia): 6 m². Dimentsioak: 3 x 2 m.
2. Kiosko Modeloa (etxola handia): 8 m². Dimentsioak: 4 x 2 m.

Hauek izango dira bi modeloen neurri orokorrak:

- Altuera alboan: 2.05 m
- Altuera erdian: 2.70 m

Bi modeloek dituzte:

- Atzealdean ate 1, egur trinkoz, sarrailaz hornituta.
- Aurrealdean irekigune 1, barraz eta kontraleiho baskulatzailaz hornituta bezeroei harrera egiteko, 800 N-ko sistema hidraulikoz eta sarrailaz.
- Alboetan 2 irekigune, barraz eta kontraleiho baskulatzailaz hornituta bezeroei harrera egiteko, 600 N-ko sistema hidraulikoz eta sarrailaz.


Bi modeloetan barnealdea espazio bakarrak osatzen du, akabera hauekin:



- 22 mm-ko Ecume zurezko zoladura.
- Ecume zurezko oholez babestutako sabaia.
- Lasur erako bernizeko akabera.


Funtzionamendua egokia izan dadin instalazio elektriko batekin dago hornitua, aginte eta babes koadro batez, fluoreszente batekin eratutako argiztapen-puntu batez eta 16A-ko hiru entxufez osatua.

Planoak eta argazkien xehetasuna:


Neurriak:







Alzado posterior e/1:40



Alzado lateral derecho e izquierdo e/1:40

Argazkien xehetasuna:



(elkartutako etxola bikoitz erako modelo)

Barnealdea:



II. ERANSKINA: ETXOLEN KOSTU EKONOMIKOAREN BANAKAPENA

Jarraian, etxola bakoitzaren kostuak zehazten dira:

ETXOLA 3x2m modeloa		
	Etxola bakoitzaren zenbatekoa, BEZ kanpo.	Etxola bakoitzaren zenbatekoa, BEZ barne.
ETXOLA BAKOITZAREN KOSTU ZUZENAK	3.529,03 €	4.270,12 €

KOSTU ZUZENEN BANAKAPENA		
Partida	Etxola bakoitzaren kostua, BEZ kanpo.	Etxola bakoitzaren kostua, BEZ barne.
Egurrezko etxola-egitura	850,00 €	1.028,50 €
Argia, ura, segurtasun-zerbitzua, laguntza teknikoaren zerbitzua	2.679,03 €	3.241,62 €

Oharra: Gainera, partida hauetan ez dira barne hartzen erakusketariak bere gain hartzen ez dituen gainontzeko gastuak eta Donostia Sustapenak ordaintzen dituenak: garbiketa-zerbitzua, eskumenero zuzendaritza-zerbitzua, Komunikazioa, ekitaldiak, tailerra, inaugurazio-ikuskizuna, Azoka dinamizatzeko karpak, etab.

	Etxola bakoitzaren zenbatekoa, BEZ kanpo.	Etxola bakoitzaren zenbatekoa, BEZ barne.
ETXOLA BAKOITZAREN KOSTU ZUZENAK	3.529,03 €	4.270,12 €
Erakusketariak etxola bakoitzeko ordaindu beharreko prezioa	1.066,12 €	1.290,00 €
Dsk etxola bakoitzeko emandako diru-laguntza	2.462,91 €	2.980,12 €



ETXOLA 4x2m modeloa		
	Zenbatekoa, BEZ kanpo.	Zenbatekoa, BEZ barne.
ETXOLA BAKOITZAREN KOSTU ZUZENAK	1.150,00 €	1.391,50 €

KOSTU ZUZENEN BANAKAPENA		
Partida	Etxola bakoitzaren kostua, BEZ kanpo.	Etxola bakoitzaren kostua, BEZ barne.
Egurrezko etxola-egitura	1.150,00 €	1.391,50 €
Argia, ura, segurtasun-zerbitzua, laguntza teknikoaren zerbitzua	2.679,03 €	3.241,62 €

Oharra: Gainera, partida hauetan ez dira barne hartzen erakusketariak bere gain hartzen ez dituen gainontzeko gastuak eta Donostia Sustapenak ordaintzen dituenak: garbiketa-zerbitzua, eskumeneko zuzendaritza-zerbitzua, Komunikazioa, ekitaldiak, tailerra, inaugurazio-ikuskitzuna, Azoka dinamizatzeko karpak, etab.

	Etxola bakoitzaren zenbatekoa, BEZ kanpo.	Etxola bakoitzaren zenbatekoa, BEZ barne.
ETXOLA BAKOITZAREN KOSTU ZUZENAK	3.829,03 €	4.633,12 €
Erakusketariak etxola bakoitzeko ordaindu beharreko prezioa	2.000,00 €	2.420,00 €
DSK etxola bakoitzeko emandako diru-laguntza	1.829,03 €	2.213,12 €